

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

267/2025 Foru Agindua, maiatzaren 8koa. Agurain eta Iruraiz-Gaunako udalerrietako lurzoru urbanizazinean Ubalza Eguzki Planta Fotovoltaikoaren Plan Berezia onesteko prozeduraren aurreko izapidea

Cañaveras Solar SL enpresa eguzki planta fotovoltaiko bat eraikitzea sustatzen ari da, Ubalza izenekoa, 15,75 MWp-ko puntako potentziakoa, Aguraingo eta Iruraiz-Gaunako udalerrietan (Araba).

Instalazio horren izapidetze sektoriala egiten ari da Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio baimenerako prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta hura garatzen duen premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretua aplikatuz, beharrezkoa da instalazio horren Plan Berezi bat izapidetzea, hirigintzan txertatzeko.

Cañaveras Solar SL enpresak Ubalza eguzki planta fotovoltaikoaren plan bereziaren zirriborroa eta ingurumen dokumentu estrategikoa aurkeztu zituen Aguraingo Udalean. Udalak ingurumen ebaluazio estrategikoaren irismeneko dokumentuaren eskaera aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoan, aipatutako dokumentazioarekin batera. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak, 2024ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez, plan bereziaren ingurumen azterlan estrategikoaren irismeneko dokumentua egin zuen. Eta sustatzaileak plan bereziaren hasierako onespeneren dokumentua eta ingurumen azterlan estrategikoa egin zituen, irismeneko dokumentua kontuan hartuta, eta dokumentazio hori udalean aurkeztu zuen, hasierako onespenera emateko.

2025eko otsailaren 28an, Aguraingo Udalak espedientea izapidetzen jarraitzeko eskatu zion Arabako Foru Aldundiko hirigintza organoari; izan ere, plan bereziak udalerrri bati baino gehiagori eragiten dio lurraldeari dagokionez, eta ez dago akordiorik eragindako bi toki erakundeetako batek izapidetzea bere gain har dezan, 2/2006 Legearen 92. artikuluan ezarritakoaren arabera. 2025eko martxoaren 17an eta apirilaren 7an, Aguraingo Udalak eskaera hori osatu zuen, eta Plan Bereziaren hasierako onespeneren eta Ingurumen Azterlan Estrategikoaren dokumentua bidali zuen, bai eta Iruraiz-Gaunako Udalaren 2025eko martxoaren 24ko idazki bat ere. Bertan, plan berezia izapidetzeko adostasunik ez dagoela adierazten du, eta AFAko hirigintza organoaren esku-hartzea eskatzen du.

Azaldutako guztiagatik, 2025eko apirilaren 14an, Cañaveras Solar SLk AFAREN esku hartzea eskatu zuen Ubalza eguzki planta fotovoltaikoaren plan bereziaren izapidetzean. Eskaerarekin batera, plan bereziaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa aurkeztu dira, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren izapidea berriz hasi behar delako; izan ere, AFAREN ingurumen organoari dagozkio ohiko ingurumen ebaluazioen irismena zehaztea eta ingurumen adierazpen estrategikoak egitea, plana behin betiko onesteko funtsezko eskumena AFAREN hirigintza organoari dagokionean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 62.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientea ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde- eta hirigintza-antolamenduak hirigintzaren bidez eraldatzetik babestutako landa-lurzoruan, "Salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira."

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean egin ahal izango dira, berariaz eta eksklusiboki, aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde plangintzak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzera bideratutako jarduketak, baldin eta, kasuan-kasuan, interes publikokotzat jotzen badira dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez, hogeit egunez jendaurrean jartzeko izapidea gauzatu ondoren.

Xedapen hori garatzen du ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikulua. Horren arabera, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan jasotako jarduketak baimentzeko, eta gainera ingurumen inpaktuaren adierazpen indibidualizatua behar badute, eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko azalerari eragiten dietenak baimentzeko, modu osagarrian plan berezi bat idatzi eta onetsi beharko da, bat etorritz ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan esandakoarekin.

Bestalde, plan berezia egiteko, izapidetzeko eta onesteko eskumenari dagokionez, 2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorritz egin, izapidetu eta onetsiko direla. Gainera, 95.1 artikuluan ezarrita dago plan partziala egitea hasiera batean udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

2/2006 Legearen 95.5 artikuluan honako hau xedatzen da: "3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrien kasuan, behin-behineko onespina emateko erabakia hartu ondoren, 10 eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik– plana dagokion foru aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan. 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespina behin betiko onespina izango da."

Ez dago 5/1998 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik 2/2006 Legean. Hartan zehazten zen udalaz gairako plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespina emateko eskumena, eraginpeko udalerrien arteko akordiorik egon ezean, dagokion foru aldundiari dagokiola, lurralde historiko desberdinetako udalerriei eragiten dietenean salbu. Halakoetan, eskumena Eusko Jaurlaritzarena da.

Lege hutsune hori judizialki konpondu da 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko ezarritako eskumen arauak analogiaz aplikatuz udalerriri bati baino gehiagori eragiten dieten plan bereziei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2009ko irailaren 16ko 573/2009 Epaian, honako hau dio: "Ondorio horiek ez dute nahi esan udalaz gairako azpiegituren plan berezirik onetsi ezin denik [- albo batera utzi gabe Eusko Jaurlaritzako edo foru administrazioko sail bati dagokion sektore eskumenarekin egindakoak, 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan aipatutako plan bereziak-], baldin eta eraginpeko udalerririk ados ez badaude eta egun indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz; izan ere, 2/2006 Legean araudi aurreikuspen zehatzik ez egoteak esan nahi du legezko hutsune bat dagoela. Hori dela-eta justifikatuta dago analogikoki aplikatzea foru aldundiari bateragarritasun plangintzaren onespina esleitzen dion xedapena."

Horri buruzko iritzia eman zuen baita ere Auzitegi Gorenak 2014ko maiatzaren 27ko 3355/2014 Epaian (3906/2011 errekurtsioa). Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hirigintza eskumena du lau udalerriri eragiten dien Pasaiako portuaren zerbitzugunearen antolamenduko plan bereziari hasierako onespena emateko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta hartan jasota dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean:

“1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerrri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badiot– edo autonomia erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badiot– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki entitateei.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agurain eta Iruraiz-Gaunako udalei bi hilabeteko epea ematea, Ubalza Eguzki Planta Fotovoltaikoaren Plan Bereziaren lurralde eremuaren eraginpean dauden udalerriak direnez gero, udal horietako batek plan bereziaren izapidetzea eta onespena bere gain hartzeko akordioa lortzeko.

Plan bereziaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa eragindako udalen eskura egongo dira Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren web orrian: [Energia berriztagarrien plan bereziak](#), bai eta zerbitzu horren egoitzan ere: Probintzia Plaza 5-1.a, Vitoria-Gasteiz.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Cañaveras Solar SL enpresari eta Aguraingo eta Iruraiz-Gaunako udalei jakinaraztea.

Laugarrena. Izapide egintza ez kualifikatuaren izaera duen foru agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 8a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA